

BALIO PROPOSAMENA

Denok bizi izan dugu hondartzatik bueltan pasatzen den egoera hori: **hankak hondarrez beteta, toaila guztiz zikina, motxilan hondarra sartu dela...** eta etxera heltzen zarenean **komuna ere hondarrez** dago. Hondartzan oso ondo pasatzen duzu, baina bueltakoa beti da astuna eta apur bat **nazka ematen** du. Gainera, **nahiz eta asko astindu**, hondarra beti geratzen da nonbait, azalean itsatsita edo zapatilen barruan. Eta **horrek plan polita pixka bat hondatzen** du.

Horregatik asmatu dugu **Airezko Kabina. Ez da makina arraro bat, ez da zaila erabiltzen**, eta **bere helburua da jendeari laguntzea**. Kabinan sartzen zarenean, **zuk ez duzu ezer egin behar: kabinak dena egiten du**. Lehenengo, **aire epel batek gorputzeko ura kentzen dizu**. Ez da deserosoa eta eguzkitan egon ondoren **gustura sartzen da**. Ondoren, **bigarren fasea pizten da: aire indartsuago batek hondarra askatzen dizu, minik eman gabe. Segundo gutxitan, askoz garbiago gelditzen zara.**

Airezko Kabinarekin gauzarik onena da hondarrari irabazten diozula. Hondarra beti eramaten dugu etxera, nahi izan gabe. **Kabina honekin ez duzu zapatilak auto ondoan astindu behar, ez duzu toaila milaka aldiz frotatu behar, eta ez duzu etxea gero garbitzen amaituko.** Gainera, **dena oso azkar da: minutu pare bat eta listo.**

Eta **ez da erosotasunarengatik bakarrik**. Jende askok egunero jasaten du arazo hau. **Familiek ez dute umeen hondararekin borrokatu beharko**, surflariak edo kirol egitera doazenek berehala garbitu ahal izango dute, eta **hondartzara askotan doazenek asko eskertuko dute** ez iristea etxera hondar pila batekin.

Gainera, **Airezko Kabina berezia da: ez du urik gastatzen eta oso erraza da erabiltzen.** Hondartza askok ez dute horrelako zerbitzurik, eta horregatik **oso aukera ona iruditzen zaigu herrientzat eta hondartza-kudeatzaileentzat.**

Laburbilduz, **Airezko Kabinarekin ura eta hondarra kendu ditzakezu azkar eta eroso**, eta horri esker **hondartzako eguna osorik atseginagoa da**. Ez dugu mundua aldatuko, baina **hondartzako arazo gogaikarri bat konpontzen du**. Askotan, **horrelako gauza txikiek egiten dute bizimodua errazagoa.**

